EBAZPENA, 2017KO EKAINAREN 23KOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, 2017/2018 IKASTURTERAKO ESKOLA TXIKIETAN HAINBAT LANPOSTU ZERBITZU-EGINKIZUNETAN EDO BEHIN-BEHINEKO ESLEIPENEZ BETETZEKO DEIALDIA BEHIN BETIKO EBAZTEN DUENA.

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2017ko maiatzaren 3ko Ebazpenaren bitartez deialdia egin zen 2017/2018 ikasturterako ESKOLA TXIKIETAN hainbat lanpostu zerbitzu-eginkizunetan edo behin-behineko esleipenez betetzeko.

Deialdiaren zazpigarren artikuluaren arabera, izan daitezkeen erreklamazioak aztertu ondoren edo erreklamaziorik ez balego, Langileak Kudeatzeko zuzendariak jakitera emango du deialdiaren behin betiko ebazpena,. Bertan, hautagai bakoitzari emandako balorazioak azalduko dira, hautatutako eta baztertutako pertsonen azken zerrenda emango da, eta hutsik gera zitezkeen lanpostuak ere azalduko dira.

Horiek horrela, eta balorazio batzorde orokorrak egindako Ebazpen-proposamena ikusita, hauxe,

EBATZI DUT

Lehena.- Hezkuntza Saileko web orrian argitaratzea I. Eranskinean agertzen den hautatutakoen eta esleitutako lanpostuen behin betiko zerrenda.

Bigarrena.- Hezkuntza Saileko web orrian argitaratzea II. Eranskinean agertzen diren behin-behineko esleipenen aurkako erreklamazioen ebazpenak .

Hirugarrena.- Hezkuntza Saileko web orrian argitaratzea III Eranskinean agertzen den baztertutako eskaeren zerrenda.

Laugarrena.-. Hezkuntza Saileko web orrian argitaratzea iV. Eranskinean agertzen diren behin betiko emaitzak

ERREKURTSOAK

Administrazio bidea bukatzen ez duen Ebazpen honen kontra, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari hilabeteko epean, berau jakinarazi eta biharamunetik aurrera, betiere Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legearen 112.1 artikuluari dagokionez, 121. artikuluan eta hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko ekainaren 23a

KONRADO MUGERTZA URKIDI
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA